# II. ERANSKINA

## NOLA ORDAINDU TASA, PROZEDURAN PARTE HARTZEKO

**a) Sukurtsaletan zuzenean ordaintzea:** “Erakunde laguntzailearentzako alea” aurkeztu jarraian aipatzen diren bankuetako edozein sukurtzaletan: Laboral Kutxa, Kutxabank (BBK-Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja Vital Kutxa eta Gipuzkoa Donostia Kutxa), BBVA, Santander, Sabadell-Guipuzcoano, Bankia, La Caixa edo Bankoa.

Inprimakiek barra-kodea dutenez, kutxazain automatikoaren bidez egin daiteke ordainketa, irakurketa optikoarekin edo datuak eskuz atzemanez.

**b) On-line ordainketa:** adierazitako edozein sukurtzaletako banku-elektroniko sistemaren bezeroa bazara, sistemak berak erakusten dizkizun argibideak jarraitu. Ordainketa mota horren bitartez, ez da alferreko joan-etorririk egin behar eta ez da ilaran itxaron behar. Gainera, eguneko 24 orduetan erabil daiteke.

On-line ordainketa egin dezakezu parte hartzeko **eskabidea bete eta segituan**, edo gerorako utzi. Ordainketa **geroago egiten baduzu (aplikaziotik irten eta gero), “NORBERARI EGOKITUTAKO KONTSULTAK” bidez egin beharko duzu.** Horretarako:

1.- Sartu http://www.irakasle.eus –en

2.- Sartu “Erabiltzailea” eta “Pasahitza”



3.- Irekiko den pantailan, eskumaldean, “**Administrazio-Izapideak”** atalean sakatu: “**EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO”**




4.- Hurrengo pantailan, sakatu “**NORBERARI EGOKITUTAKO KONTSULTAK”**




5.- Agertuko den pantailan, sakatu “**Ordaindu**”.

